



2016KO URTARRILAREN 22KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko urtarrilaren hogeita bian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratu-tako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztzen da 2016ko urtarrilaren 8an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira.

Aran zinegotziak (EH Bildu), hainbat fakturei buruz, gastu horien egokitasuna edo beharrezkotasunari buruzko bere zalantzak azaldu ondoren, faktura hauen onarpenaren aurrean abstenitu egingo direla esaten du.

Gaia bozketan jartzen da, eta Tokiko Gobernu batzarrak, aldeko 3 boto, aurkako botorik gabe eta bi abstentzios (EH Bildu) 2015eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 107 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEI MILA SEIEHUN ETA HOGIETA BI EURO ETA HIRUROGEITA HAMABI ZENTIMO (20.622,72 €)takoa eta 2016ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 3 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA BAT EURO ETA LAUROGEITA ZAZPI ZENTIMO (941,87 €)takoa onartzea erabakitzen du.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak azertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 12-11-10 zbk.dun esped.: zerbitzuan baja ematea 2015eko abenduaren 20an, heriotzagatik.
- 15-11-11 zbk.dun esped.: urtarrilaren 1etik aurrera zerbitzua murriztea, astean 7 ordutik 5 ordura, onuradunaren osasun egoerak hobera egin duelako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %13a izango da.



- 14-11-07 zbk.dun esped.: 2015eko abenduaren 23tik aurrera zerbitzua handitzea, astean 6 ordutik 12 ordura, onuradunaren osasun egoerak zaintza handiagoa eskatzen duelako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuen %15a izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

2015eko gizarte larrialdietarako laguntzen zuriketa urtarrilaren 15erako bidali behar zela eta, urtarrilaren 13an alkatetzaren ebazpen bidez onartu zen 2015eko abenduari zegokion laguntza bati, 16-01-001 zbk.dun esped. hain zuzen ere. Etxebizitzaren mantentze gastuetarako 92,50 € eta alokairu gastuetarako 250 €ko diru laguntza ematea ebatzi zen. Ematen zaiona eskatutakoaren %100a da.

Tokiko Gobernu Batzarra jakinaren gainean gelditzen da.

- 14-01-006 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako laguntzan baja ematea otsailetik, onuradunaren diru sarrerak aldatu egin direlako.
- Orobione jubilatu eta pentsiodunen elkarteari.-

2015eko urteko ekintzen garapena eta oinarrizko egituren funtzionamendurako, mila hirurehun eta hirurogeita lau euroko (1.364,00 €) diru laguntza ematea.

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Alkateak esaten du Beneditarren Fundazioan udala patronoa dela eta Fundazioaren gastuei aurre egiteko hitzarmen bat izenpetuta dagoela eta udal aurrekontuan horretarako partida jasota dagoela. Eta gaineratzen du horren arabera udalak hogeita mila euroko (20.000 €) aportazioa egiten diola fundazioari.

Gaiaz eztabaidatu ondoren, azkenean guztiek adostasunera iristen dira orain hamar mila euroko (10.000 €) aportazioa onartzeko.

V.- HEZKUNTZA ETA EUSKARAKO DIRULAGUNTZAK .-

Hezkuntza eta euskara batzordeak, Lazkao Txiki Musika Eskolari, 2016ko Udal aurrekontuan berari diru laguntza emateko aurreikusita dagoen partidatik orain erdia ematea proposatzen du, hau da, hogeita bost mila euro (25.000 €) ematea.

Aran zinegotziak (EH Bildu) esaten du urtean 50.000 euro asko iruditzen zaiela, eta gai honek alderdi guztien arteko lanketa eskatzen duela eta lanketa hori egitekotan gelditu zirela baina ez dela egin. Eta hau horrela izanda, abstenitu egingo direla.

Alkateak ados dagoela egiteko lanketa bat dagoela esaten duenean.

Honen ondoren, gaia bozketan jartzen da eta Tokiko Gobernu batzarrak, aldeko 3 boto, aurkako botorik gabe eta bi abstentzioz (EH Bildu) proposamena onartu egiten du.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-



Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hiru eta erdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

A handwritten signature in blue ink, consisting of a large loop and a horizontal line.

